

BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

4097

EBAZPENA, 2022ko irailaren 12koa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendariarena, memoria demokratikoa berreskuratzeko liburuak argitaratzeko eta dokumentalak egiteko dirulaguntzen 2022ko deialdia ebazten duena.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendariaren 2022ko apirilaren 13ko Ebazpenaren bidez (apirilaren 29ko EHAA, 82. zenbakia), 2022. urterako dirulaguntzen deialdia egiten da memoria demokratikoa berreskuratzeari buruzko liburuak argitaratzeko eta dokumentalak egiteko.

Ebazpen horren 13. artikuluan izendatutako epaimahai kalifikatzaileak dirulaguntzak emateko egindako proposamena aztertuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ez onartzea I. eranskinean ageri diren erakundeek aurkeztutako eskaerak, eranskinean adierazten diren arrazoiak direla-eta.

Bigarrena.– II. eranskinean zerrendatzen diren erakundeei esleitzea laguntzak, eranskin horretan zehazten diren zenbatekoen arabera. Laguntza horiek minimis izaera dute, eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EE) Erregelamenduari lotuta daude (EBAO, L 352. zk., 2013-12-24koa).

Hirugarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko buruari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan eta hurrengoetan.

Bilbao, 2022ko irailaren 12a.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendaria,
MIREN AINTZANE EZENARRO EGURBIDE.

2022ko irailaren 22a, osteguna

I. ERANSKINA

BAZTERTUTAKO ESKABIDEAK

Kodea	Izena	Proiektua	Baztertze arrazoia
1	Traola Produzioak SL	Dokumentala: «On Benito»	Eskatutakoa zuzentzeko dokumentazioa ez aurkezteagatik atzera egindakotzat jotzen da (deialdiaren 12. artikulua).
4	Iniciativas de Comunicación Social SL	Dokumentala: «Pueblos con historia, personas con memoria»	Ez du deialdiaren 11.2.g) artikulua betetzen. Ez da dokumentalaren web-helbidea eman, ez eta dokumentalean sartzeko aukera edo hura jasotzen duen artxiboa bidali ere.
6	Ikeder SL	Dokumentala: «8 minidocus»	Ez du deialdiaren 11.2.g) artikulua betetzen. Ez da dokumentalaren web-helbidea eman, ez eta dokumentalean sartzeko aukera edo hura jasotzen duen artxiboa bidali ere. Ez du betetzen 3. artikulua. Ez dago muntaketaren eta/edo postprodukzioaren azken fasean.
10	Estibaliz Sadaba Murguia	Dokumentala: «Contraarchivos y disensos, prácticas colectivas mujeres libres 1936»	Ez du betetzen deialdiaren 3. artikulua. Ez dago muntaketaren eta/edo postprodukzioaren azken fasean.
11	Fundación Ramón Rubial	Liburua: «La experiencia resiliente en Hondarribia (1931-2020)».	2022ko ekainaren 23an atzera egin zuen.
12	Aitzol Arroyo Tumas	Dokumentala: «Jesus Carrera Olaskoaga»	Eskatutakoa zuzentzeko dokumentazioa ez aurkezteagatik atzera egindakotzat jotzen da (deialdiaren 12. artikulua).
16	Mauro Bernardo Saravia Belles	Liburua: «Lupi Bedarra»	Ez du deialdiaren 11.2.h) artikulua betetzen. Ez da liburu osoa pdf formatuan aurkeztu.

2022ko irailaren 22a, osteguna

II. ERANSKINA

ERAKUNDE ESLEIPENDUNAK

Kodea	Izena	Proiektua	Dirulaguntza (euro)
2	Francisco Javier de la Colina Aranceta	Liburua: «Informe Soraluze»	3.245,00
3	Gogoan por una Memoria Digna Elkartea	Dokumentala: «Gesto»	10.000,00
5	Ikeder SL	Liburua: «Aguirre en América»	2.703,65
7	Matteo Re	Liburua: «El asesinato social y el relato de las víctimas de ETA»	2.950,00
8	Mirokutana, Koop. Elk. Txikia	Dokumentala: «Tortura y malos tratos en el País Vasco entre 1960-2014»	10.00,00
9	Indalecio Prieto Fundazio Kultural Pribatua	Liburua: «Prieto-Bastida, historia de una amistad a través de cien cartas»	4.106,00
13	Covite Terrorismoaren Biktimen Kolektiboa	Liburua: «Heridas»	5.000,00
14	Gernika Gogoratuz Bakearen Aldeko Aztertegia	Liburua: «Bonanzas culturales y barbarismos mercantiles»	5.000,00
15	Juan Tomás Enciondo Batarrita	Liburua: «La confrontación nuclear en Euskadi. Lemoniz: informe IV».	2.243,17
Guztira			45.248,22